

15. ISILPEAN GORDE ALA EZ

zergatik ote?

aitortza

zenbateraino gorde?



Zenbait lanbidek, beren jardunaren berezitasunak tarteko, hainbat gauza (informazio-iturriak, datu zehatzak...) isilpean gordetzeko eskubidea edota derrigortasuna dute. Gauzak lotu samartuta daude legedietan, baina, hala ere, zalantzak ugari ere sor daitezke arlo horretan.

zergatik ote?

- Hemen dituzun lanbideetatik zeinek dauka ikusi eta entzundakoa isilpean gordetzeko betebeharra eta zeinek isilpean gordetzeko eskubidea? Ze alde ikusten duzu bi egoera horien artean?

1. Medikua
2. Abokatua
3. Kazetaria
4. Aholkulari fiskala
5. Albaitaria
6. Enpresa bateko gerentea
7. Apaiza
8. Psikologoa
9. Irakaslea
10. Administrazio publikoko langileak
11. Etxeko langileak
12. Goi kargu baten idazkaria

- Aurkeztu ikaskideei egindako aukerak eta adierazi zure esperientzia alor horretan:

1. Baduzu gorde beharrik edo gordetzeko eskubiderik zure lanean?
2. Zer gorde behar duzu? Zergatik?
3. Ezagutzen al duzu zure inguruan horrelakorik?
4. Zer iruditzen zaizu hainbat ogibidetan betebeharrak edo eskubide hori izatea?

- Espainiako Konstituzioan lanbideko sekretua aitortzen zaie hainbat lanbide dituzten profesionalari: legelari (abokatu eta prokuradoreak), mediku, apaiz eta kazetariei. Zein dira zeuen ustez hori justifikatzen duten arrazoiak?

- Jarraian, magistratu baten azalpena¹ entzungo duzue, egin dituzuen hipotesiak egiaztatzeko.

- Taldeetan eztabaidatutakoaren laburpena aurkeztuko duzue ikastaldearen aurrean, baita zuen hipotesiak noraino bete diren ere.

zergatik ote?



- Prentsan azaldutako hiru kasu dituzue beherago. Aztertu eta eman zuen iritzia: horrelako egoeretan babestuta egon beharko luke isilpean gordetzea? Zergatik?

A kasua

Harrapatu berri dute lagun bat, ustez, bi neska akabatu dituelakoan. Ez du abokaturik izendatu eta han agertu zaio abokatu-kazetari bat bere zerbitzuak eskaintzeko. Atxilotuak onartu du eskaintza eta aitortu dizkio abokatuari kasuaren gorabehera guztiak. Honek kazetaria ere badela esan eta hurrengo egunean prentsan eman du argitara guztia.

B kasua

Gizon bat bahitu dute, tartean droga-kontuak dabiltzala. Bere burua babesteko edo, gaizkileen taldeko batek abokatu bati azaldu dizkio bahiketaren xehetasunak: non daukaten gizona, zein diren arrazoiak, zer egiteko asmoa duten... Poliziak jakin du honen guztiaren berri, baina abokatuak ez du argibiderik eman nahi izan, sekretu profesionalari men eginez.

C kasua

Modelo ezagun batek, ustez, kirurgia estetikoko hainbat ebakuntza egin zituen. Berak dena ukatu arren, mediku batek hainbat komunikabidetara haizatu du kontua. Medikuek hainbat proba erakutsi zituen eta "miss" lehiaketa bateko antolatzaileek nahikotzat jo zituzten modeloari "titulu" kendu eta kalte-ordainak eskatzeko. Modeloak dio informazio hori egia balitz ere, medikuak isilpean gorde behar zuela; medikuak dio modelo iruzur egiten ari zela eta berak ezin zuela hori jakinaren gainean onartu. Gaia auzitegietan omen dago.

aitortza



- Elizako aitortza bat irudikatzen duen bideo-pasartea² ikusiko duzu. Entzun arretaz eta erabaki eliztarrak zeren errua aitortzen duen eta zer leporatzen dion apaizak.
- Honelako aitortzek ez dute legearen aldetik garrantzi handiegirik, baina zenbaitetan, delituen aitortzak izan arren, isilpean gorde beharrekoak dira. Segidako irratsaioan³ entzungo duzue nola dagoen aurreikusita jurisdikzio ezberdinetan apaiz eta hainbat erlijiosoren sekretua. Hiru taldetan banatuta, arreta bereziaz erreparatu egokitu zaizkizuen galderei.

aitortza

A taldea

1. Zein alde dago sekretu profesionala eta isiltasunaren artean?
2. Zein gairen inguruko auzietan behartu ditzake epaileak erlijio-gizonak dakitenaren berri ematera?

B taldea

1. Zein erlijiosok dute sekretu profesionala eta isiltasuna onartua?
2. Zein kasutan egingo diote uko eliz gizonak dakitena kontzertuari?

C taldea

1. Zein erlijiotako ministrok dute aitortua sekretua?
2. Zein dira eliz gizonen aurka aurreikusitako zigorrak? Zein kasutan zigortuko dituzte?

- Entzun ondoren, erantzunak adostu egingo dituzue taldean.
- Talde bakoitzak dagozkion galderen erantzuna aurkeztuko dio ikastaldeari.

zenbateraino gorde?



- Duela hilabete batzuk nahiko sonatua izan zen Zumarragan aitortza-sekretua zela eta ez zela sortu zen eztabaida bat. Irakurri ondoko albiste zatiak eta ea gogoratzen duzun.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak bigarren ezetsi du Zumarragako Salbatzailearen parrokiako apaizak egindako eskaria, bi gutxitu psikikori egindako sexu-gehiegikeria direla eta, bost lagunen aurkako epaiketan lekuko modura ez deklaratzeko. Maiatzean ere apaizak eskatu zuen ez deklaratu behar izatea, argudiatuz gertakariak ezagutu zituela bere apaiz eginkizuna betatzen ari zela, eta horrek deklaratu behar izatetik salbuetsi egiten zuela.

Hala ere, Auzitegiko bigarren sekzioak uztailaren 5ean egindako autoan ezetsi egiten du apaizaren eskaria, argudiatuz ez duela gorde beharreko inolako sekreturik; izan ere, ustezko biktimak kasuaren instrukzio garaian adierazi zuen apaizari kontatu ziona.

Autoak dioena dioela, apaizak berretsi egin zuen bere eskaria, eta biktimetako baten amaren idatzia erantsi zion. Agiri horretan amak aditzera ematen du ados dagoela apaizak ez deklaratzearekin. Hala ere, Auzitegiaren auto berriak berretsi egiten du aurrekoan esandakoa, eta apaizak deklaratu egin beharko du.

zenbateraino gorde?

Ahozko bista aste osoan luzatu da. Ikusmin handieneko eguna, asteazkena izan zen, egun horretan deklaratu baitzuen lekuko gisara ustezko biktimaren herriko apaizak, berari esan baitzion ustezko biktimak elkarrizketa pribatuan, ez aitortzan, sexu-gehiegikeriak jasan zituela auzipetuen aldetik.

Epaiketa bera apaizaren salaketari esker jarri zen abian. Epaiketan adierazi zuenez adin txikikoak adierazi zion sexu-gehiegikeriak jasan zituela. Hala ere, apaizak uko egin zion mutikoak adierazitakoarekin zerikusia zuten galderei erantzuteari, argudiatuz galdera horiei erantzutea batera ezina zela bere apaiz eginkizunekin.

Jarrera horren aurrean, epaileak 150 euroko isuna ezarri zion eta agindu zuen guardiako epaitegiari jakinaraztea erantzuteari uko egin ziola, argi dezan agintaritzari desobeditzeko delitu larrian erori den ala ez. Horrela balitz, urtebetera arteko kartzela-zigorra jaso dezake.

- Binaka jarrita, zehaztu zuen iritzia hurrengo galderen laguntzaz:

1. Legeak dioena kontuan hartuta, apaiz honek isilpean gorde beharko du esandakoa? Behartuta egongo da dakiena kontatzera?

2. Kasuaren berezitasunak kontuan izanda, ontzat hartzekoa da kasuari buruz zehaztasunak ezagutzen dituen bakarra isilik geratzea? Nolako erabakia uste duzue hartuko zenuketela bere kasuan?



zenbateraino gorde?

- Gai hori dela-eta irratsaio batean⁴ egindako gogoeta entzungo duzue jarraian. Zein neurritan dator bat zuek egin duzuen gogoetarekin? Taldeka jarri eta eztabaidatu jarraian proposatzen diren puntuenguruz.

1. Adituak emandako argudioak abokatu eta prokuradoreentzat ere erabil litekeela uste duzue?
2. Eta familiako gertuko ahaideen kasuan? Zergatik?
3. Kazetariei dagokienez, zigor-kodeak ez omen du garatu sekretu profesionalaren gaia. Zein irizpide iruditzen zaizkizue zentzuzko profesio horren kasuan? Zergatik?

- Talde bakoitzean esandakoaren laburpena egin irizpide-zerrenda batean.

zenbateraino gorde?

Abokatuek, ofizios ari direnean, kontzientzia-eragozpenerako eskubidea baliatzeko aukera izan beharko lukete. _____

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Aurkeztu zeuen zerrendak beste taldeetako kideei eta zerrenda bakarra osatu.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

